

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

2.500 urteko eta 282 kilometroko maratokia

WWW.WIKIMEDIA.ORG



Ezkerrean, Filipidesen eskulturak soldadua Atenasera hiltzorian iritsi zeneko unea irudikatzen du (Parisko Louvre Museoa). Eskuinean, gaur egungo maratoi jendetsuetako bat, New Yorkekoa zehazki.

MARATHON (GREZIA), K.A. 490. Atenastarrak eta pertsiarrak elkarren aurka borrokatu ziren Marathoneko Guduan, izen bereko lautadan. Lehenago, atenasarrek pertsiarren aurka altxatutako hiri joniarreri laguntzea erabaki zuten. Orduan, pertsiarrak Marathonen lehorreratu ziren Atenaseko armadaren aurka egiteko. Baina soldadu atenasarrak izan ziren eraso gogorrena jo zutenak. Pertsiar asko hil zituzten, eta bizirik eutsi ziotenek atzera ontziratu eta ihes egitea beste erremediorik ez zuten izan.

Garaipena lortuta, Filipides soldadua Atenasera bidali zuten hiritarrei berri ona eman ziezaien. Marathonetik Atenasera arteko 42 kilometroak lasterka egin ondoren, "irabazi dugu" esan eta hil egin omen zen, nekeziak jota.

Baina Filipides ez zuen historiako lehen maratoi hark soilik hil. Lasterketa luzea errematea baino ez zen izan haren tzat. Lehenik Espartara bidali zuten laguntza eske eta 240 kilometro egin behar izan zituen bi egunetan. Ahalegin horiei guduan bertan borrokan aritu zela erantsiz gero, Atenasera iristean hil izana baino iristea bera da harritzekoa.

WWW.INGMARATHON.COM



1896an, Atenasen egin ziren lehen Olinpiar Joko modernoetan, maratoi izeneko lasterketa luzea antolatzea erabaki zuten, Filipidesen balentriaren omenez. Greziar armadako ofizial batek Spiridon Louis izeneko artzaina aukeratu zuen bere herrialdea ordezkatzeko. Lasterketa baino lehen, Louisek bi egun eman zituen baraurik eta otoitzean. Lasterketaren amaieran lehen tokian eta bakar-bakarrik zeharkatu zuen helmuga, herrikideen txalo artean. Hala, greziarrek ohoreari eustea lortu zuten, Olinpiar Joko klasikoaren sortzaileek 1896ko joko horietan irabazi zuten atletismoko proba bakarra izan baitzen.

Emakumeentzat, aldiz, garaipena askoz beranduago iritsi zen. 1970eko hamarkadan hasi ziren zenbait hiritako maratoietan parte hartzen eta, lehenengo, 1984ko Los Angeleseko jokotan izan zuten 42 kilometro pasatxo horiek lasterka egiteko aukera.

Aurtengo Atenaseko maratoiaren ere parte hartu ahal izan dute eta, hala, Filipidesen egitandiak 2.500 urte beteko dituenek, soldaduari omenaldia egingo diote.

Arrastoak

Pinochetek Frei presidente ohia pozoitu zuen

CESAR AUGUSTO PINOCHET Txileko diktadore ohiak Eduardo Frei Montalva, 1964tik 1970era herrialde bereko presidente demokratikoa izana, pozoitzeko agindua eman zuen, berriki amaitutako prozesu judizial baten arabera.

Allenderen aurkari sutsua, Freik bat egin zuen hasieran Pinochetek kolpearekin. Baina berehala diktadura kritikatzeko hasi zen. Pinochetek Freiri segimendua egiteko agindu zuen, 1981ean presidente ohia garbitzeko aukera aprobetxatu zuen arte. Eduardo Freiri ebakuntza egin behar ziotenean, erietxean talioz eta ziape gazez pozoitu zuten. Osasun arazoak areagotu egin zitzaizkion Freiri, eta 1982ko urtarilean hil zen. Senitarte-koek ezohiko zenbait elementu antzeman zituzten, baina ia 30 urte egon dira zain susmoak baieztatzeko.

WWW.COSMOLOAN.COM

